

Praktikatik ikasi: jardunbide onak



Gure proiektu “izarrak”

- **GEU** www.geuelkartea.eus

- Igandeak jai. Familia-giroan, guraso-elkarteekin batera.
- Hezitzaileen formazioa. Diskurtso komuna lantzeko aukera.
- Euskalaka udalekua. Egonaldi trinkoa. Laborategia ere bada hezitzaileekin egiten dituzten saioetako proposamenak probatzeko.
- BALIO ERANTSIA: **harreman-sarea (eskolak, guraso-elkarteak, aisialdi taldeak, administrazioa...)**



- **Kukulaisi** www.kukulaisi.eus

- *Entrenatzen* egitasmoa. Kirol arloko eragile guztiak elkarrekin lanean kirola eraldatu.
- Erasoen aurkako protokoloa. Kukulaisi barruan dauden elkarteak elkarrekin landutakoa
- Bazkide diren elkarten sarea. Bazkideek ematen diote balioa Kukulaisiri
- BALIO ERANTSIA: **Bazkideen sareak ematen dien indarra eta prestutasuna (ezetx esaten ez jakitea)**

- **Urtxintxa** <https://urtxintxaeskola.eus>

- Aisialdi-eskola. Hezitzaile askorekin lan egitea ahalbidetzen die.
- Hezkidetza egitasmoa. Formazio-saioak eskoletan, pedagogia feministatik abiatuta
- Parte-hartze prozesuak. Adib. Euskharan elkartearen eraldatzeko prozesua
- BALIO ERANTSIA: **izaera hezitzailea – balioen lanketa**



Galdera iradokitzaileak

- Ariketa bat proposatu nahi dizuegu (etxean egitekoa). Paper bat hartu; pentsatu zuen elkartean, taldean edo erakundean; galdera hauei erantzun:
- Aisialdiari buruz eta euskararen erabilerari buruz ari garela...
 - Zein dira zuen hiru proiektu “izar”?
 - Zergatik uste duzue jardunbide onak direla?
 - Zein da zuen entitatearen “balio erantsia”? Zertan zarete “onenak”? Alde horretatik, zer irakatsi ahal diezue gainerako elkarteei?
 - Zuen proiektu “izar” horiek zer falta dute?
 - Falta duzuen hori norengandik ikasi ahal duzue? Zein dago horretan indartsu?



Zer dira jardunbide onak?

- Definizioa (gizapedia):
 - Jardunbide onak edo praktika onak (edo egokiak) ezarritako helburu batzuk betetze aldera egokitzat eta komenigarritzat hartu diren praktika, ekintza eta jokabideak dira, gomendio gisa proposatu ohi direnak. Helburuak betetzeaz gainera eta zehatzago, jardunbide on deitzen diren horiek erroreak gutxitu, baliabideak eraginkortasunez erabili, erakunde barneko giroa, bezeroen asebetetze maila eta kanpoko irudia hobetu egiten dituzte.
- Jardunbide onen ezaugarriak:
 - Batez ere... MALGUTASUNA. Testuingurua irakurtzen jakitea eta horrekin koherentea izatea.



Jardunbide onak

- Leku seguruak sortu, konfiantza giroa...
- Kolektibo guztiak gonbidatu, eta gonbidatuak sentiarazi. Aztertu nor geratzen den kanpoan eta zergatik
- Hizkuntza-sentsibilizazioa landu
- Haiek – Gu dikotomia apurtu: "gu barruan"
- Begirada intersektionala beti buruan.

- Autonomia sustatzen duen jarduera
- Jarduera erakargarria, grina pizten duena, mugitzen gaituena...

INKLUSIBOAK

IZAERA HEZITZAILEA
DUTENAK (BALIOETAN
HEZI)

- Testuingurua aztertu eta horretara egokitu. Malgutasuna.
- Inguruko taldeen / pertsonen / entitateekin konektatu.
- Agintea (boterea) banatu, ikuspegi intersektional batetik... lidergo partekatua
- Bakoitzaren erritmoak errespetatu; denon inplikazioa bilatu
- **HELBURU PARTEKATUAK**
- Ebaluazioan ere komunitatea inplikatu

KOMUNITATEAN ONDO
INTEGRATUAK

**JARDUNBIDE ONAK
AISIALDIAN.
PRAKTIKA ONEN
DEKALOGO BAT?**

SARETUAK

- Gure sarea handitu. Zerk batzen gaitu? Norekin ditugu helburu komunak? Sarea josteko hariak bilatu.
- Erreferente eta aliatu berriak bilatu... ez-ohikoak, ez betikoak
- Bakoitzaren erritmoak errespetatu; denon inplikazioa bilatu
- Elkarrengandik ikasi

BESTERIK?

ETA... NOLAKO
HEZITZAILEAK BEHAR
DITUGU BERTAN?

- Helburuekiko konpromisoa du... erein egiten du.
- Euskararekin atxikimendua du
- Malgua da, moldakorra
- Enpatikoa da, emozioei begiratzen die.
- Kontzientea da norekin ari den lan egiten. Taldea behatu (aztertu) eta partaideei entzun egiten die. Espazio seguruak sortzen ditu.
- Parte-hartzea sustatzeko estrategiak erabiltzen ditu
- Erreferente bat da gaztetxoentzat

[*] item batzuk errepikatzen dira: multzo batean baino gehiagotan agertu ziren



Amaitzeko...

- Bost saiotan landu ditugun erronkak:

1. ERRONKA: Nola lortu aisialdi antolatua “defektuz” euskaraz izatea?
2. ERRONKA: Nola lortu aisialdi antolatua ekosistema bat izatea eta ez jarduera solteen bilduma bat?
3. ERRONKA: Nola lortu aisialdi antolatua inklusiboa izatea?
4. ERRONKA: Nola landu aisialdian haur-gaztetxoek atxikimendua euskararekin?
5. ERRONKA: Nola hobetu gure praktikak? Elkarrengandik nola ikasi?

- Balorazio batzuk:

- Aberasgarria da esperientzia ezberdinak ezagutzea, are gehiago gaika antolatuak.
- Aberasgarria da arloko jendea ezagutzea
- Larritasun puntu bat ikusi dugu: aisialdiak baditu arazo estruktural batzuk kezkarriak direnak (arauketarik ez, langileen egoera prekarioa, eskola-segregazioaren eragina...)
- Saiotetan oso profil ezberdina duen jendea bildu gara: teknikariak, koordinatzaileak, hezkuntza arloko eragileak... Ondo, baina iritziak partekatzeko zailtasunak ekarri ditu horrek (leku ezberdinetatik hitz egitea). Agian hezitzaile gutxiegi.
- Gehienok oso espektatiba definiturik gabe etorri gara (edo espektatiba ezberdinekin), baina, oro har, pozik!
- Norabide bakarreko interakzioa. Elkarrekin interaktuatzeak aukera gutxiegi izan dugu. Saio guztietan zegoen horretarako tarte bat aurreikusita baina denborak jan egin gaitu beti.

